

KATIXA DOLHARE



Katixa Dolhare-Çaldumbide 1982an sortu da.

Lapurtarra da, eta hainbat tokitan bizi izan ondoren, Bankan errotzea erabaki du bere familiarekin. Literaturan agregatua, doktore eta konferentzialaria da. Literatura garaikidea ikertzen du Bordaleko unibertsitatean, ondoko ildo hauek jorratuz, besteak beste: literatura eta teoriaren arteko harremanak; filosofia eta literaturaren arteko harremanak; kultura- eta hizkuntza-anitza. Irakasle da kolegio, lizeo eta unibertsitatean.

Bibliografia

Argitalpenak

2012 Ordre et désordre dans l'oeuvre poétique de Jean Tortel | Méthode! 21
(Pauko Unibertsitatea)

2014 Biribilgune | Elkar

Artikuluak

2008 Septentrioz Septentrio | Uztaro

2013 Bakartasuna Itxaro Bordaren obran | 452fº

2013 Le non-écrire dans la poésie de Jean Tortel | Modernités 35

2013 La parole frontalière d'Itxaro Borda dans Ezer Gabe Hobe | Langages
(de) frontaliers, Florence Godeau zuz., Kimé.

2013 Jean Tortel lecteur de Claude Royet-Journoud: l'épreuve du choc |
Relire, relire Jean Tortel, Catherine Soulier zuz., Tarabuste

2014 Paradoxes de la neutralité lyrique dans la poésie objective contemporaine (Anne-Marie Albiach, Emmanuel Hocquard, Claude Royet-Journoud) | Modernités 36 (Bordaleko Unibertsitatea)

Itzulpena

Gascohna, lenga e identitat (euskarazko kapitulu) - Philippe Lartigue (Frantsesetik) | Per Noste

As Wurden Slipe Wurde - Quand la Parole a été Polie, Hendrik Beekman, Josse de Haan (Gazteleratik) | Utjouwerij Venus

Saiakera

2012 Poétique de Jean Tortel | Honoré Champion

Biribilgune hitzak adiera zenbait ditu:

- biribilgunea, bidegurutzetan trafikoa errazteko eraikitzen den errepide zati biribila;
- **biribilgunea**, gorputzak dituen gune biribilak, bereziki aldaka eta bularrei buruz;



Dotzena bat urtez Euskal Herritik kanpo ibili ondoren, izenik gabeko protagonistak erabaki du berriz itzultzea Harriaga bere sorterrira. Bake garaia hasia denez Euskal Herrian, espero du ahal bezain ongi berriz integratzen ahalko dela, ofizio aitorgaitza duen arren: Polizia Nazionaleko agentea da, eta lan egiten du Legez Kanpoko Immigrazio Errepresioaren zerbitzu batean. Burutzekoak dituen bi inkesten beharrendako, Senegalera eta ondotik Meaux hirira joanen da: hango herritarren bizitza partekatuko du, eta bidenabar hausnartuko nortasunaz eta elkar-bizitzaz.

Egunkariko aipamenaren bitartez izan nuen estreina *Biribilgune* eleberri honen berri, harrigarriki, Iparluma bekaren eskutik datorren lana izanik aurreikustekoa litzatekeelako aurrez ere propaganda pixka bat gehiago jasoko zuela beste kasu batzuetan horrela izaten delako. Bego horretan. Egunkariko aipamenean jakin nuen intrigazkoa-edo zela eleberria, inkesta bat zuela abiapuntu eta nor eta euskal literaturako detektibe erruraletan finena erreferentzia. Dolharek berak aitortua Amaia Ezpeldoirekiko keinua, tren-bidaia luzeetan bihotza goxatzen laguntzen zioten Itxaro Bordak irudikatutako pertsonaiaren abenturek. Hitz gutxi horiek nahikoa eta sobera nire interesa pizteko, neuri ere irribarreak franko atera baitizkit Amaiak Bardeetan, Bilbon, Baionan eta abarretan.

Hartu nuen liburua, beraz, eta esan dezadan ahobilorik gabe: azalak ez dio mesederik egiten. Iparluma gisako kolekzio bereizi baten balizko onura/kalteetan eta kolekzioaren diseinu orokorrean sartu gabe iruditu zait koloretako marrazkia erabat dela nahasgarria, HGLko abentura-liburu baten aurrean zaudela dirudi. HGLko abentura-liburuek, noski, ez dute berez ezer txarrik, baina azalen arteko orrietan aurkituko duguna ez dator inondik inora sailkapen horrekin bat. Ez dut uste *esteta* mokofinen kontua denik, ezpada funtsezko zerbait, azalak tentu handiagoz aukeratze behar hau.

Orrialdeak pasatzen hasi eta ikus dezakegu Bordarekiko lotura ez dela soilik gure nobela honetako protagonista izengabearen eta Ezpeldoiren arteko adiskidetasuna. Kontrara, Bordaren pentalogian detektibegintza aitzakia den heinean gai politikoak, sozialak eta pertsonalak jorratzeko, Dolharerenean ere bertsu, inkesta heldulekua da ardatza bainoago, bilaketa esistentzialerako. “Malgutasun moral eta ideologikorik gabeko (euskal) herrikideen artean” (13. orria) arrotz sentitzen den narratzaileak bidean topo egingo du bere antzera sorterriarekin nolabaiteko gatazkan dauden pertsonaiekin: auzoek adoptatutako Sinbulunbai umearekin Harriagan, hautu sexuala dela-eta jaioterrian bizitzea zail duen Mamadurekin Dakarren, frantses jaio baina frantses egokitzat sekula hartuak izango ez diren migranteen seme-alabekin Pariseko Meaux *banlieue*an. Aski ezpeldoitarrak ere badiren lekualdatze geografikoei esker iristen zaizkigu, besteak beste, kolonialismoaren bi alde, batetik, kolonia ohietako egoeraren konplexutasuna sakonago ulertzeko nahia, bestetik, kolonizatzailearen ezgaitasuna eta gogorik eza bere iraganeko gehiegikerien ondorioak kudeatzen hasteko. Horrez gain, agertzen zaizkigu emakumeen subordinazio-egoerak hemen, hor, han eta harago, baina baita indarrez eta kuraiaz betetako andreak ere, eta narratzailea egoera zitalenetik salbatzen duen neskato argia.

Arin doakizu liburua esku artean, euskara batua zabaltzen eta arnasarazten duen hizkeran, apur bat biribilegia dirudien amaierara heldu arte. Apur bat birilegia, apur bat zoriontsuegia, badakigu denok bizitza zein gordina den, baina segundu batez gelditu eta pentsatu dut eleberriak deskribatzen dituen eguneroko tragedia latz guztietan, eta zer demontre, itxaropen izpitxo bat eskertzen da, ondo amaitzen den istorio bakar bat ez da hain sinesgaitza, sorterri eta molde diferenteetako elkarbizitza sustatzeko deia, ez *flower-power*ki, baizik eta guztion esfortzuz.

Biribilgune / [Katixa Dolhare-Zaldunbide](#) / Elkar, 2014

Estiloaren handitasun naifa Hasier Rekondo / *Berria*, 2014-06-08

Friedrich Nietzschek esaten zuen estilo handia edertasunak handitasuna gailentzen duenean izaten dela. Prosa finaren jabe, Katixa Dolhare-Zaldunbidek (Ezpeleta, Lapurdi, 1982) estiloari ematen dion lehentasuna edukiaren nondik norakoari gailentzen zaio bere lehen eleberrian, *Biribilgune*-n (Elkar, 2014). Gazteluma beka irabazi ondoren plazaratu du idazle lapurtarrak aipaturiko nobela.

Estiloaren eta edukiaren artean zenbaitzuetan sinesgarritasuna kokatzen da, nobela “soziologiko-digresiboa” egin nahi bada bederen. Azkenaldian maiz dakusagu gurean etorkinen egoeraren berri emateko detektibe- generoaren erabilera askea. Kasu honetan sinesgarritasunaren amua goxoki eta samur irents dezakegu: Euskal Herriko iparraldean ezkutupean etorkinekin lanean diharduen emakumezko polizia euskaldun baten istorioa kontatzen zaigu lehen pertsonan. Agian Hegoaldean ez litzatekeena batere sinesgarria, sinesgarriago egiten baita Iparraldean, geopolitikaren ajeak nonbait. Euskal Herriatik at zenbait urtez bizi ondoren, emakumezko poliziak Harriaga sorterrira itzultzea erabakiko du, baina ezkutupean gordeko du bere sekretua herri abertzalearen aurrean. Euskal Herriko bi aldeetan gertatu ohi den gisara, taldearen orroa itogarri suertatuko zaio. Badira harribitxiak nobelaren atarikoetan. “Dogmak, ideologiak, teoriak, kontzeptuak, politikak, sistemak eta horiek eragiten duten militantzia barkagor eta itogarritik urrun gelditzen naiz, nire buruaz eta urratsez edozein mementotan irri egiteko gisan erabiliz”. Prosa ehuntzean Marcel Prousten kutsua antzematen zaio Dolhare-Zaldunbideri, sintaxiaren eraikuntzan nabarmentzen dena preseski. Euskaraz aske edozein gairen inguruan hitz egiteko abilezia, berriz, Itxaro Bordaren literaturgintzatik datorchio: Iparraldeko giro itogarria nortasun indibidualarentzat, herri azalean ezkertiarra eta sakonean eskuindar-arrazista, bertako etorkinen inguruko aurreiritziak eta kanpoan bizi diren etorkinen gaineko oniritziak, euskaldunek euskarari erakutsitako hipokrisia, abertzaletasunaren gaineko iritzi libreak... molde distiratsuan azaltzen zaizkigu, aipaturiko prosa eta lexikoaren ederrak (Lapurdiko lexiko aberatsa darabil) bidaide.

Alta, erabilitako ildo narratiboen uztarketa gorabeheratsuek ahuldu egiten dute nobelaren handitasun estilistikoa. Izan ere, polizia horrek zenbait “agindu bitxi” jasoko ditu, bi ildo narratibo nagusiek bat egiten dutenean sinesgaitz bihurtuz. Nolatan ez dakigula ezkutupeko lanaz jabetuko den Sinbulunbai mutiko adoptatuak Senegalen galdutako bere gurasoak aurkitzeko eskatuko dio; horrez gain, bere nagusi den unitateko emakume bakarrak, Salimak (nobelaren azken aldera, *spoiler*-arekin ezer zapuztu nahi gabe, bikote keinuak egingo dizkiona), proxeneta bat atxilotzeko mandatua egingo dio, non eta Senegaleko Tuba herrialde fundamentalistan. Nobelaren funtsa ez bada erabat detektibe-generokoa, digresio soziopolitikoak gailentzen baitzaizkio, baditu zenbait literatur *mcguffin*, baina ahulak nolana ere. Esaterako, proxeneta bila Senegalgo herrialde fundamentalistara egindako detektibe-bidaia-turistikohistorikoa aditutako telefono dei batez amaitzen da, proxeneta Frantzian dela konturatzen baitira polizia eta bere lagun Mamadu senegaldar homosexuala. Nobelaren amaiera ipuin maitagarri bihurtzeak ere ez dio askorik laguntzen narrazioaren sinesgarritasunari. Hala ere, estiloak salbatu egingo du nobela *naiftasun* horretatik.

Biribilgune / [Katixa Dolhare-Zaldunbide](#) / Elkar, 2014

Dolhare (eta II) Beñat Sarasola / *Berria*, 2015-02-05

Nobela beltza, *B generotzat* jotzen diren beste zenbait literatur genero moduan, aski gutxietsia izan dela ez da kontu berria. Egia da, halaber, generoko klasikoen kalitateari esker hainbat aurreritzi ezbaian ipini direla aspaldi handitik. Gurean, lan horretan lehenengoetakoak izan genituen Pott banda eta, zehazkiago, Bernardo Atxaga. Euskarazko lehenengo nobela beltzak aurrekoak dira, baina Atxaga eta enparauak izan ziren genero hori goi literaturaren ia parean ipini zuten aitzindariak. Ross McDondald-i buruzko artikulu bat argitaratu zuten bigarren alean Pottekoek, eta Atxagak Patricia Highsmith eta Charles Baudelaire kontrajartzen zituen artikulu sonatu bat idatzi zuen urte batzuren buruan.

Euskal nobela beltza aintzatzera etorri da orobat, besteak beste, Baztango irakurle taldeak antolatu berri duen lehenengo —etorriko al dira gehiago!— Euskal Nobela Beltzaren Astea. Maltzurren batek galde lezake ea euskal nobelak ematen duen aste baterako, baina egiazki, badu mamirik euskal nobela beltzak, baita egun-egungoak ere. Ezagun denez, nobela beltzaren ezaugarri behinenetakoa da egiten duen gizartearen disezio eta analisi zorrotza, gehienetan gure munduaren barrunbe zikinak azalaratzen dituen. Sarritan goi literaturatzat jotzen diren lanek baino lehen eta gehiago egiten dute hori gainera. Esango nuke horixe dela baita ere gure literaturaren kasua, bai behintzat zenbait gairi dagokionez. Bakanak dira gurean migrazio garaikidearen gaia jorratzen duten fikziozko lanak, bakanak benetan gizartean fenomeno horrek duen pisuarekin alderaturik. Pablo Sastrearen *Leuropa* izango da salbuespen ohoregarrietako bat; berriagoa, Koldo Izagirrereren *Dumitru*.

Nobela beltzetan, baina, ugariagoak eta tematiagoak dira, proportzioan bederen, problematika horretan kokatzen direnak. Jon Arretxeren azkeneko nobeletan, esaterako, Toure izeneko burkinafasoarra dugu protagonista, paperik gabea bera, eta besteak beste prostituzio sare bati egiten diona aurre iaz argitaratu zen *Hutsaren itzalak* liburuan. Urte horretakoa da halaber oharkabea —aski modu injustuan, nire ustez— igaro den Katixa Dolhare-ren *Biribilgune* nobela, non hor ere prostituzio sareak agertzen zaizkigun. Iparluma bilduman argitaratu zuen Elkarrek, iparraldeko idazleentzat berriaz sortutako bilduman. Hegoaldeko usu gibelen uzten ditugun idazle horien bisibilitatea handitzeko sortu bilduma izango da segurki, baina nago *Biribilgune* bezalako liburuei mesede handiago egingo liekeela ohiko Literatura sailean argitaratuko balira.

Horrekin ez diot itzuri egin nahi, haatik, nire erantzukizunari. Izan ere, 2014ko urte literarioa errepasoa egiten zion mahainguru batean parte hartu nuen berriki, eta han nabarmendu zuen Juan Luis Zabalak *Biribilgune*, neronek irakurtzeke nuena —ezin urte osoan plazaratutakoak leitu, eta beste hainbat estakuru—. Migrazioaren gaiari heltzen dio bete betean istorioak, eta zehazki, Frantziako estatuan laizismo frantziarraren eta musulman askoren artean dagoen talkari. Xehetasunez agertzen zaizkigu horiek ez ezik musulman familia ezberdinen arteko kalapitak,

euskaldunongandik metro eskasera dauden auzoen artekoak alegia, baina guk —eta gure literaturak—, gure mundutxo erosoan estekaturik, jaramon apurrik ere egiten ez dizkiegunak ia. Bidenabar, *Charlie Hebdo*-ren kontrako atentatuak baino lehen idatzi eta argitaratu zen, amaiera arte irakurri duenak badaki zergatik diodan hori. Terrorismoaren kontrako itunen hitz larrien aldean, hobeki, ez bairik gabe, literaturaren letra xehea.

Biribilgune / [Katixa Dolhare-Zaldunbide](#) / Elkar, 2014

Euskaldunon irudia osatzeko miraila Mikel Asurmendi / *argia.eus*, 2015-04-15

Biribilgunen sartu aitzin Ludwing Wittgentein filosofo austriarraren aipu hau duzu: “Ohidura ez da ikas daitekeen zerbait, ez da nahi denean berriz lot daitekeen hari bat. Gure arbaso propioak nahi bezala hauta ez ditzakegun bezalaxe. Ohidurarik ez duena, eta bat eduki nahiko lukeena, maitemindu dohakabearen irudikoa da”. Aipu horrekin ontsa baino hobeto islatu du nobelaren filosofia idazleak.

Eleberrigileak Harriaga herrixkako Oihanzola auzo irudizkoan sortu du protagonista: polizia da. Frantziako legez kanpoko immigrazio errepresioaren polizia sekretua. Euskalduna. Emakumezkoa. Amaia Ezpeldoiren laguna (Itxaro Borda idazlearen fikziozko detektibea). Amaiak ez beste du ezagutzen protagonistaren nortasuna. Istorioari sinesgarritasuna emateko irudikortasuna eta heldulekuak ongixko uztartu ditu egileak.

Poliziako unitateko buru Salima Chebrauik Hego Senegaleko Gambiara bidean jartzen du, izenik ezagutzen ez diogun protagonista. Aldi batez, afrikar jatorrizko Sibulunbai gaztetxoarekiko adiskidetasunak —eta bihotz-beratasunak— herrikide duen honen nortasuna argitzera pusatu du.

Dakar, Casamance edota Meaux hiriak/herriak eta hauen aldiriak ezagutuko dituzu. Baita Mamadu Dialegei Sane laguntzaile senegaldarra, Tiago bihozgabea —Mohammed Thiam izeneko maltzurra—, Jean-Paul Chome auzapeza hala Niakuhufosso nola Awentorebe ere, konparazionera.

Hara, harat eta honat ibiliko zara protagonistaren ibilbidean. Alabaina, Hexagonoko eskualdeak, Afrikarako bideak, herrialdeak eta pertsonak zuk zeuk ezagutu behar dituzu irakurle, bestelakoan, ene eleek eleberriari xarma eman baino kenduko baitiote. Izan ere, *Biribilgune* nobelak badu xarma. Ez naiz kontu exotikoez ari, gure Iparraldetik heldu denari eman ohi zaion taxuaz, alegia. Istorioari xarma dario bere euskara jorietatik hasita, egoeran egoera, tramaren hariari taxuz egokitua. Plazera da belaunaldi berri bateko Katixa Dolharek euskara molde horretan atxiki duela hautematea. Baita polizia euskalduna ere sinesgarria izatea. Gaur gaurkoz —arrazoiak arrazoi, ezagunak ene ustetan—, oraindik ere, sinesgarria izateko, poliziak gure Iparraldeko izan behar du, naski.

Genero beltza duzu *Biribilgune* (Elkar) . Thriller gisara asmatutako istorio bizia. Eta politikoa, beraz soziala. Frantziako politika eta Iparraldea amiñia ezagutzeko maneran idatzia. Euskal Herria, Frantzia, Paris eta Afrika orobat txirikordatzen dituen istorioa. Kolonialismoaren berri dakarkiguna, kolonialismoaren isla izaki. Bere xumean, euskaldun kolonizatuon izaera kolonialistaren isla beha dezakegun miraila ere bada *Biribilgune* nobela.

Mendebaldeko politika-jarduera ustekeria nahiz ustelkeria da. Haur, gazte eta droga trafikatzailerak dabilta honen inguruan. Denok izan gaitezke hiltzaileak edo prostitutak, eta ez du axola zein herriko, nazioko edo klasekoak garen, denok gara jaio garen ingurumariaren araberrakoa edo izan gaitezke hein batean. Edota, ohiturarik ez duena, eta bat eduki nahiko lukeena, maitemindu dohakabearen irudikoa da. Baiki.

Pertsonok —euskaldunok barne— garenaren isla dateke eleberria: maitemindu dohakabeon alegoria. Prefosta, eleberriak heroinaz gain heroiak behar ditu. Izenik gabeko protagonista duzu heroi nagusia, bere hainbat lagunekin batera. Mundu osoa ez da usteldua, ez orobat pertsona orotara usteldua ere.

Eleberria errealitatetik elikatua, fikzio bilakatua eta erreusitua da. Errealia da arras, fikziozkoa izanagatik. Baina... Beti dago *bainaren* bat. *Baina* eta *maila*... Literatura irakurlearen nahiaren eta mailaren araberrakoa baita.

Eleberriak hasiera indartsua dauka, bukaerak ez horrenbestekoa. Biribilgunean katramilatu da amiñi bat protagonista, itzuli-mitzuli dabil azken zatian. Idazleak gauza sobera batera kontatu nahi du, naski. Horrek zailtzen du istorioa hobeto bilbatzea. Halaber, gai anitz jorratzea horien azalean geratzeko arriskua dakar. Hots, trama ontsa bilbatzea nekeza bihurtu zaio Katixa Dolhare-Çandumbideri nobelaren hondarrean. **Zer nahi gisaz, ez alferrik ez debalde ere, bere opera prima da.** Segi dezala idazten, bere buruarengan konfiantza hartzen. Zinez, lausengu hutsalez harago eta honago, duina da eleberria. Ele berriak eta era berriak dakartzana. Itxaro Bordaren segidako idazlea dukegu jada. Eta barka nazatela idazle biek, euren alderatzea.

Anartean, idazlearen kuttuna begitandu zaidan Sergio Leone zine zuzendaria gogoan, zinemagile batek *Biribilgune* zeluloidera eramane duen itxaropenari — irudimenari— atxikitzen gatzazkio. Film on baterako istorioa eskaini baitigu.

Sarrerako aipuaren filosofoa parafraseatuz “iraultzailea bere burua aldatu dezakeena izango da”. Katixa Dolhare-Çandumbide bide (h)one(t)an abiatu delakoan nago. Beraz, gogotik atxik eta aitzina jo!